

Erroma eta bere erlijioa

La religión romana forma parte, junto con la de Grecia, del mundo clásico de la Antigüedad occidental. Roma prestó atención oficial a la vida religiosa, organizándola institucionalmente con su panteón de dioses, creencias mitológicas, calendario de fiestas, templos y santuarios, con personal de culto y gobierno. Por otra parte, la religiosidad familiar y popular tuvo su propia vida. Es una historia de más de un milenio y alcanzó a numerosos pueblos.

Erromatarren erlijioa indoeuroparra zen bere jatorrian, eta azpimarratzekoa da nola garai ezberdinak ezagutu zituen bere baitan eta inguruko herriekiko harremanetan. Erromako erlijio ofiziala jatorrizko tradizioari eusten ahalegindu zen, baina Inperioan bereganatutako herrienak ere aintzakotzat hartu zituen. Inperioko erromatartze-politikaren barruan dago jarrera politiko-erlijioso hori.

Erlijioaren presentziak

Idazle klasikoei sinetsi nahi badiegu, erromatarrek oso erlijio zaleak izan ziren. Zizeronek gogorarazi zigun kultu edo gurtzako arauak gordetzen herririk leialena zela Erromakoa; Salustioarentzat, berriz, munduko erlijio zaleenak ziren Erromako herritarrak; Tito Liviok, azkenik, lortutako garaipenak jainkoen laguntzari esker etorri zirela uste zuen.

Jainko anitz, dogma gutxi eta praktikotasun handikoa izan zen erromatarren erlijioa. Komenida, bada, mila eta gehiago urteko garai historikoak aipatzea: Monarkiak bete zituen ia bi mende eta erdi (K. a. 753-510), iraunkorragoa gertatu zen Errepublika (K. a. 510-45) eta Erromaren arorik gorena Inperioak lortu zuen (K. a. 29-476 K. o.).

Garai bakóitzean erlijioa egoera berrietara moldatuz joan zen, unean uneko premia, interes eta komenentzietara egokituz, alegia. Hau bereziki egia da Oktabio Augustoren erreforma politiko-erlijioso handien urteetan (K.a. 27-K.o. 14):

erlijioaren berrantolatzea, tenplu eta santutegiak berritzea, enperadorearen gurtza zabaltzea, berrikuntza handiak.

Lehenago, jatorrizko oinarri indoeuoparretik hasita (Erroma eta Lazio eskualdea), eturriarrak izan ziren Erromako erlijioari berritu on bat eman ziotenak, hain zuzen Monarkiaren azkeneko hiru Erregeak "etruskoak" izan baitziren. Ondoren, Errepublikarekin eta Inperioan, erlijio ofiziala ongi zaindu eta garatu zen, jainkoen "Panteoia" eta erlijioaren erakundeak sortu, hobetu eta ongi finkatuz.

Ofizialtasun horren ondoan eta parean –ez da ahaztu behar– erlijiotasun herritarra zegoen, naturari, arbasoei, norberaren sentierari eta eguneroko beharrezane lotuagoa. Izan ere, Erromako jatorrizko jaieren oinarrian zegoen arbasoei (hildakoen oroitzapenari) zegokien etxean bertako gurtza, etxeko aldare eta guzti. Familia buruaren (*paterfamilias*) zeregina zen hor apaiz izan eta erriak gordetzea, etxeko "su sakratua" (*ignis sacer*) itzali gabe zaintzea.

Erlijiotasun pertsonal askeak hasieratik zuen giro horretan bere hazlekua, eta Erromaren historiako lehen garaietan inguruko izadian aurkitu zituen naturako jainko txikiak (*numen* edo *genius* zirelakoak); jendearen garaioko erlijiotasun hark sentipen animistaz jaso zuen naturako misterioa, eta indar arriskugarrietatik magia erabiliz babestu ziren sinestunak.

Bertute jakin batean bildu zuten erromatarrek erlijioa eta bizitza, mundu sakratua eta pro-



faua elkarrekin lotuz: *pietas* deitzen zioten bertute horri, "pietatea". Giza burubide jatorrenak biltzen zituen horrek: jainkoekiko jaiera, aberriaren leialtasuna, arbasoekiko begiramena. Dena bat, dena batean.

Erlijioa, gizartean antolatuta

Erromako jatorrizko erlijiotasunean, *numen* edo *numina* deituek (gauzen jainkozko indar misteriotsuek, alegia) lekurik behinena izan zuten, eta *numen* bakoitzaren jainko-indarra herri-herriaren bihotzetan zegoen, nahiz eta hasieran *numina* haiek nortasun pertsonalikgabeak izan ziren.

Nekazariak bezala abeltzainek beren *numina* zituzten laboreen eta animalien emaitzak segurtatzeko; baina baita bizitzako une jakinetarako ere (jaiotza, ezkontza, etab.). Pertsona, gauza eta ekintzek, gutziek, bere indar babesleak zituzten, beraz. Erromatarren bizitza jainkozko indarrez beteta ageri zaigu.

Erromako mitologia iraganeko eta unean uneko historia mundutarra argitzeko eratu zen: Hiriaren sortze jainkotarra bezala Errepublikaren eta Inperioko garaipenak hobeki ulertzeko, etab. Komeni izan zenean jainkoen izaera eta beraien arteko harremanak berrasmatu egin zituzten, hemengo munduko egoera hobeki ispila zezaaten (K. a. 503 eta 493ko iraultza sozialaren ondoren, adibidez).

Erromatarren teologia giza bizitzari begira ari da beti: gizakiak bere zereginak ditu nonahi eta noiznahi, familiatik hasi eta ofizio eta kargu gorenen gailurreraino, eta une eta eginkizun bakoitzari dagokio bere jainkoa edo, gutxienez, bere jainko-indarra (*indigitamenta* deitzen zioten horri erromatarrek).

Gainera, sinestunak halakorik nahi zuenean, hitzarmen baten bidez lot zitzakeen jainkoaren eta norberaren harremanak (*votum*): "eskatzen dizudana ematen baldin badidazu, nik halako

eta halako zin-oparirekin erantzungo dizut". Nabarmena da erromatarrek jainkoekiko zuen jokabide guztiz juridiko hau (magia zaharretik urrundua), horrela bi aldeen eskubideak –zin egilearena eta jainkoarena, esan nahi da– zaintzen zirela.

Erromako Hirian sortzetik bertatik hartu ziren erabaki erlijiosoak: Hiria eraikitzean, bertako lehen jainkoentzako *Pomerium* deituriko barrutia eratu zen. Gerora, hor eta hortik kanpo hainbat tenplu eraiki ziren, Kapitolioko Jupiterena, adibidez. Handik aurrera, hau izan zen Erromako sinestunen ospakuntza-leku nagusia (ospakizun erlijioso eta zibiletarako berdin balioko zuena). Honekin eta besterekin, erlijio ofizialak, eta herritarrak, ahal izan zuen neurrian tenpluz hornitu zituzten Erromako Hiria, eta Inperioko beste hiri, kolonia eta eskualde urrunenak ere.

Agintari zibilek eskutik eraman nahi izan zuten erlijio-bizitza, eta horretarako Hirian, Italian eta Inperioan baliabideak jarri eta arauak eman zituzten, Erromatik bertatik hasi eta Probintzia eta Udaletaraino (*municipia*). Eta Estatu-erlijio horrek goi-hierarkia bat izan zuen: Erroman bertan, Pontifex Maximus, Flamines Maiores (3), Flamines Minores (12) kargudunak zituela; gertuko nahiz urruneko Udaletan ere ongi banatuta zeuden ardura politiko-erlijioso hauek.

Ofizialtasun eta heldutasun guztiak gorabehera, hiru krisi larri izan zituen erlijiotasun erromatarrek: bat, Errepublikaren azken urteetan; bigarrena, Grezia eta Ekialdeko misterioen erlijioak Erroman leku hartu zutenean, eta hirugarrena Kristautasuna hedatu eta gora etorri zenean. Historia hori dena Euskal Herrira ere iritsi zen, eta gogoan hartzekoa da. Ikusiko dugu zerbait hurrengo batean.

Joseba Intxausti